

Funtsezko elkarteak

Gure produktua fabrikatzeko eta banatzeko, oinarrizko hainbat bazkide nagusi behar ditugu.

Lehenik eta behin, Sofiak diseinuaren eta marketinaren ardura hartuko luke. Diseinuari dagokionez, helburua ile-lehorgailua inklusiboagoa egiteko behar diren aldaketak inplementatzea da, hala nola hura eusteko oinarria edo sakatzeko botoi errazago batzuk. Marketinari dagokionez, gure bazkideekin harremanetan jartzeaz arduratuko litzateke, baita etorkizunean gure produktua saldu edo gurekin kolaboratu dezaketen enprekin ere, eta iragarki eta sare sozialetako argitalpenen bidez publizitate kanpainak egingo lituzkete.

Bestalde, Noa eta Theo arduratuko lirateke produktuaren fabrikazioaz eta barne-funtzionamenduaz. Honen oinarria, bere barne mekanismoaren bidez, ile-lehorgailua ahalik eta ergonomikoena izatea eta zaratarik egin ez dezan edo ahalik eta txikiena sor dezan saiatzeari izango litzateke, balio proposamenean espero diren helburuak bete eta Sofiak aurretik sortutako diseinuak aurrera eraman ahal izateko.

Gainera, Naroa izango litzateke gure enpresaren kudeaketa administratiboaren arduraduna. Kontabilitatea (ordainketak, kobrantzak, gastuak, diru-sarrerak...), produktua sortu ahal izateko behar den materialaren eskaerak, telefono bidezko arreta eta agenden kudeaketa (bileren koordinazioa, oroigarriak eta hitzorduen kudeaketa) aurrera ateratzean oinarrituko litzateke batez ere bere lana.

Bazkideekin amaitzeko, gure ile-lehorgailuaren banaketa bete ahal izateko paketeria bat erabiliko genuke, erosleei edo saltzen duten dendei bidali ahal izateko. Saltoki moduan, saltoki handiak edo onlineko salmenta-plataformak erabiliko genituzke (Media Markt, Amazon...).

Gure hornitzaileei dagokienez, osagai elektriko eta elektronikoak handizka erosten lagunduko digutenak beharko genituzke, Noa eta Theok produktua egin ahal izateko, baita enbalajerako beste batzuk ere, material birziklatuz eta birziklagarri osatua, gure bezeroek kaxak utzi ondoren berriro erabiltzeko. Hornitzaileak oso garrantzitsuak dira, horiei esker ile-lehorgailua edo etorkizuneko produktuak fabrikatzea posiblea izango delako, enbalajerako material birziklatuak erabiltzeko gaitasuna barne. Horrela, ingurumenari ahalik eta kalterik txikiena eragin ahal izango diote.